

IRABAZI ITURRIAK

Bi irabazi iturri mota daude, baina guk aukeratu duguna, ordainketa bakarrean oinarrituta dagoena da. Gure produktua nahiko merkea denez ez luke logika handia izango ordainketa zatika egitea, beste produktu batzuetan bezala.

Horrez gain, gure irabazi iturriak modu desberdinetan lortuko ditugu. Hasteko, erabilera prima erabiliko dugu, izan ere, zerbitzu baten truke, hau da, zaldi batean bueltak ematearen truke, dirua lortuko dugu. Bestalde, neguko zozketa bat egingo dugunez, aktiboen salmenta ere erabiliko dugu, fisikoa den produktu baten eskubideak salduko baititugu.

Aldi berean, mailegua ere erabiliko dugu dirua irabaztearen truke, zaldia alokatu egingo baitugu. Gainera, publizitatea erabiltzea ere pentsatu dugu, irabazi iturri erraza eta eraginkorra baita, sare sozialetan kontu bat sortuko dugu, erosle berriak erakartzeko asmoz, bertan jarduera eta ekintza ezberdinak egingo ditugu, erosleekin gertutasunez tratatzeko asmoz. Gure pultseren prezioa oraindik ez dago erabiktia, horregatik erabaki dugu, pultseren prezioa merkatuaren arabera izatea, hau da, merkatuan aldaketak ikusten baditugu, bertara moldatuko gara gure pultseretan prezio hobereana baita zuzenena ere ezartzeko. Hasieratik, prezio finko bat ezartzen baldin badugu gaizki ateratu dakiguke, agian merkatuan prezioak baxuagoak direlako.